



HONDARRIBIKO UDALA

Erref.: **KG**

Esp. Kod.: 2017ELIL0001

XXXIV. BORDARI ETA SATARKA

LITERATUR LEHIAKETA

(2017)



O I N A R R I A K

Hondarribiko Udalak, idazle berriak sortu nahian, Bordari eta Satarka Literatur Lehiaketa antolatu du. Lehiaketa honek bi sari-atal ditu, Bordari ipuin saria eta Satarka olerki saria. Biotan parte hartzeko ondoko baldintzak bete beharko dira:

- 1.- Lanek euskaraz idatziak izan beharko dute.
- 2.- Lehiaketa honetan edonork parte har dezake.
- 3.- Sari-atal bakoitzak bi maila izango ditu:
A maila 18 urtez gorakoentzat
B maila 18 urtez beherakoentzat.
- 4.- Gaia librea izango da.
- 5.- Lanek, argitaratu gabeak eta beste inon saritu gabeak izan beharko dute.
- 6.- Behin aurkeztuz gero, ezin izango da atzera egin.
- 7.- Lanak orriaren alde batean bakarrik idatziko dira, makinaz edo ordenagailuz eta tarte bikoitza utzita.
- 8.- Lanen neurriak, baldintza hauen azkenean adierazten direnak izango dira.
- 9.- Lan bakoitzeko **LAU** kopia aurkeztuko dira.
- 10.- Lan bakoitzaren lehen orrialdean datu hauek adierazi beharko ditu egileak:
 - a) Zein sari-ataletan aurkeztu duen lana (Bordari ala Satarka)
 - b) Zein mailatan (A ala B)
 - d) Lanaren titulua.
 - e) Egilearen izenordea.
 - f) Egilea Hondarribian jaioa edota bertako biztanlea den.
- 11.- **Gutun-azal itxi baten gainean lanaren titulua eta egilearen izenordea idatziko dira, eta barruan egilearen izen-deiturak, adina, helbidea, telefonoa, eta nortasun-agiriaren kopia.**
- 12.- Lanak aurkezteko epea **2017ko urriaren 31n** amaituko da. Ordurako BAZen (Biztanleen –arreta Zerbitzuan) aurkeztu beharko dira edota posta-kutxan sartuak egon beharko dute.
- 13.- Epaimahaia Hondarribiko Udalak izendatuko du.
- 14.- Epaimahaikoen erabakia aldaezina izango da, eta egoki irudituz gero, eman gabe ere utzi litezke sariak.
- 15.- Hondarribiko Udalak antolatu duen lehiaketan saritutako lanak Hondarribiko Udalaren esku geratuko dira, eta Udalarena izango da lan horiek erakutsi eta argitaratzeko eskubidea, egilearen izena adieraziz. Lan hauek prentsa idatzian, ohiko argitalpen modura edota internet sarean eman ahal izango ditu ezagutzera. Egileek ez dute jabetza eskubiderik jasoko.
Saririk jasotzen ez duten lanak Hondarribiko Udaleko Euskara Sailean jaso ahal izango dira 15 egunez sari banaketa egiten denetik. Epe horren ondoren egileek ezingo dute lanik berreskuratu.
- 16.- Zernahi gertaturik ere, sariketako partaideek ontzat emango dute Udalaren erabakia.
- 17.- Saritutakoek bi asteko epean lana ordenagailuz Hondarribiko Udaleko Euskara Zerbitzuko helbide elektronikora bidali beharko dute, hau da euskara@hondarribia.eus helbidera. Era berean, edo posta arruntaz banketxe edo aurrezki-kutxak emandako agiria, urte horretan kontuaren titularra bera dela egiaztatzen duena. (Hondarribiko Udala, Euskara Zerbitzua, Kale Nagusia 20, Hondarribia) helbidera bidali beharko da.



"BORDARI" SARIA

A Maila

- 1.- Ipuinak 3 folio izango ditu gutxienez eta 10 gehienez.
- 2.- Bi sari izango dira:

Lehen saria 800 €eta oroigarria
Bigarren saria 400 €eta oroigarria
Hondarribiko onenaren saria: 400 €eta oroigarria

B Maila

- 3.- Ipuinak 2 folio izango ditu gutxienez eta 6 gehienez.
- 4.- Bi sari izango dira:

Lehen saria 400 €eta oroigarria
Bigarren saria 250 €eta oroigarria
Hondarribiko onenaren saria: 250 €eta oroigarria

"SATARKA" SARIA

A Maila

- 1.- Olerkiak 50 lerro izango ditu gutxienez eta 150 gehienez.
- 2.- Bi sari izango dira:

Lehen saria 800 €eta oroigarria
Bigarren saria 400 €eta oroigarria
Hondarribiko onenaren saria: 400 €eta oroigarria

B Maila

- 3.- Olerkiak 40 lerro izango ditu gutxienez eta 120 gehienez.
- 4.- Bi sari izango dira:

Lehen saria 400 €eta oroigarria
Bigarren saria 250 €eta oroigarria
Hondarribiko onenaren saria: 250 €eta oroigarria

Sari hauei % 21 kenduko zaie P.F.E.Z.rako (300 €ik gorako sariei)

